ARAUDIA

1. Data eta lekua: TXINDOKIKO KILOMETRO BERTIKALA 2023ko maiatzaren 7an ospatuko da, Larraitzen (Abaltzisketa) eta irteera 10:00etan izango da.

2. Ibilbidea: Lasterketa kronoigoera gisakoa izango da, beraz, banan-banan edo talde txikietan aterako dira korrikalariak. Larraitzetik hasi eta Gaintzako bidegurutzeraino joango dira korrikalariak. Zati hau neutralizatua izango da. Bidegurutzearen parean dagoen bidea hartuko da eta hemen hasiko da denbora kontatzen. Hemendik, Txindokira igoko da lasterketa, Oria Iturritik pasaz eta honen ostean dagoen bihurgunean, ezkerretara dagoen bidea hartuko da, “tximista” deritzon bidean gora eginez eta Txindokiko gailurreraino. Ibilbideak 3,6km-ko luzera eta 980m-ko desnibel positiboa izango du. Eguraldiaren arabera, ibilbidean aldaketak egin daitezke.

3. Partaidetza: 18 urte baino gehiago eta 75 baino gutxiago dutenek parte hartu ahal izango dute (15 urte baino gehiago dutenek ere parte hartu ahal izango dute baldin eta gurasoen baimena badute eta lasterketan haren tutore helduren bat badago). Korrikalariak gehienez 200 izango dira (30 gehiago gordeko ditu antolakuntzak), beti araudia errespetatzen badute eta betebeharrak betetzen dituztenean.

4. Mailak:

- Gizonezkoak:
    - Orokorra: 18 urtetik aurrera.
    - Juniorrak: 19 eta 20 urte dituztenak, hau da, urte horretan 21 urte betetzen ez dituztenak.

        - Jubenilak: 17 eta 18 urte dituztenak, hau da, urte horretan 19 urte betetzen ez dituztenak.
        - Kadeteak: 15 eta 16 urte dituztenak, hau da, ez dituzte 17 urte bete behar erreferentzia urtean.
        - Herritarrak: Abaltzisketan erroldatuak
- Emakumezkoak:
    - Orokorra: 18 urtetik aurrera
    - Juniorrak: 19 eta 20 urte dituztenak, hau da, urte horretan 21 urte betetzen ez dituztenak.
    - Jubenilak: 17 eta 18 urte dituztenak, hau da, urte horretan 19 urte betetzen ez dituztenak.
    - Kadeteak: 15 eta 16 urte dituztenak, hau da, ez dituzte 17 urte bete behar erreferentzia urtean.
    - Herritarrak: Abaltzisketan erroldatua

5.Izen-emateak: Otsailean hasi eta maiatzera bitartean 215 lasterkari izateraino. Antolakuntzak konpromiso ezberdinak bermatzeko, 15 zenbaki gehiago gordeko ditu.

6. Prezioa.: Izen ematearen balioa 24€ ingurukoa izango da. Zenbateko honen barruan proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibilaren eta istripu asegurua, antolakuntzak eskainitako zerbitzu guztien erabilera (lasterkarien poltsa, hornitze puntuak, jantzitegia, lasterketaren ondorengo bazkaria) eta beste zenbait opari barne izango lirateke. Lasterkariaren poltsa eta opariak jasotzeko parte-hartzaileak bertan egon behar du. Parte-hartzaile guztiek, izen ematea egiten dutenean, lasteketako araudia onartzen dute.

7. Seinaleak.: Ibilbidea banderatxoez eta balizatze xingolaz markatuta egongo da (gorako bidea soilik). Tximistaren hasiera puntuaren erreferentzia ere egongo da. Lasterketa bukatu eta berehala, beherako bidean, ikur guztiak bilduko ditu antolakuntzak.

8. Kontrolguneak: Antolakuntzak lasterketan zehar kontrolgune 1 kokatuko du, derrigorrezkoa da bertatik pasatzea eta hor berezko igarobide kontrolak egingo dira.

9. Hornitze puntuak: Hornitze puntu bat izango da ibilbidean zehar. Ibilbidean zeharreko hornidura puntua, 2,35. kilometroan (Oria Iturrian) egongo da eta, hornidura likidoa (ura) egongo da soilik. Erabat debekatuta dago probak dirauen bitartean edonoren (beste korrikalari bat edo beste norbait) hornigaiak hartzea, soilik aukera egongo antolatzaileek xede horretarako ezarritako puntuan, hau da, Oria iturrian hornigaiak jasotzea.

10. Igarobide denborak: Kontrol puntura (2,35. kilometrora) ordu bete eta 15 minutuan iritsi ez denak ezingo du lasterketarekin jarraitu, zeren eta ez antolakuntzak ezta laguntza zerbitzuek ere ezin izango dute haren babesa bermatu. Hala nola, antolakuntzako arduradunek eta erratza daramaten korrikalariek norbait probatik baztertzeko ahalmena izango dute kasu hauek kontuan izanik: kontrolguneen denborak gainditzen direnean, bere osasun egoera ezegokia denean, probaren arauak apurtu direnean, markatutako ibilbidea bete ez denean, zenbakia bistakoa ez denean, antolakuntzaren arduradunen oharrak aintzat hartzen ez direnean, segurtasun puntuetan arauak betetzen ez direnean edo beste lasterkariekiko jarrera ez egokia antzematen denean. Kanporatuak izan direnak edo alboratzen direnak kontrolgune hurbilenean jakinarazi eta zenbakia eman beharko dute eta antolakuntzaren arduradunen edo bolondresen oharrak jarraituz proba utziko dute.

11. Lasterkarien irteerak: Banaka. Lehiakideen artean denbora-tarte bat zehaztuko da (30 segundotik bi minutura).

12. Sariak:

- Maila absolutua gizonezkoak:
    - 1º Txapela, garaikurra eta 2024 ediziorako doako izen ematea
    - 2º Garaikurra
    - 3º Garaikurra
- Juniorrak eta jubenilak gizonezkoak
    - 1º Garaikurra
    - 2º Garaikurra
    - 3º Garaikurra
- Maila absolutua emakumezkoak:
    - 1ª Txapela, garaikurra eta 2024 ediziorako doako izen ematea.
    - 2ª Garaikurra
    - 3ª Garaikurra
- Juniorrak eta jubenilak emakumezkoak:
    - 1ª Garaikurra
    - 2ª Garaikurra
    - 3ª Garaikurra
- Herritarrak: lehenengo emakumezkoa eta gizonezkoari garaikurra.

13. Sailkapena: Sailkapen guztiak kronoak.com web orrian egongo dira.

14.Dortsalen banaketa: Zenbakien banaketa probaren egun berean goizeko 8:00etatik 9:30ak arte irteeran egongo den karpa batean egingo da, lasterkariaren NAN-a konprobatu ondoren zenbakia jaso ahal izango da.

15.Ingurugiroa: Lasterketa mendian zehar doa, beraz debekatua egongo da zaborra botatzea. Horretarako lasterketa hasieran eta Oria iturrian, hau da, erdiko kontrolgunean (2,35.kilometroan) ontziak eta poltsak egongo dira, plastikoa, papera eta zabor organikoa bereizteko. Antolakuntzak tontorrera igotzen dituen ur botilak, antolakuntzak berak jaitsiko ditu, lasterkariek ezingo dute beraiekin botilarik eraman, zabor hau dagokion moduan birziklatuko dela bermatzeko. Arau hau ez betetzeak kanporatzea ekar dezake.“Tximista” delako zatian, ezingo da ikuslegorik egon. Bestalde, lasterketa Aralargo Parke Naturalaren barnean ospatzen denez, antolakuntzak egunean bertaratutakoei zor zaion errespetua eskatuko die (zarata mugatzea…)

16. Osasun laguntza: Antolakuntzak laguntza zerbitzuak ibilbidearen gune estratejikoetan jarriko ditu. Gainera; helmugan dutxak eta beharra duten lasterkarientzako osasun zerbitzuak izango dira.

17. Segurtasuna: Antolakuntzak lasterketaren ibilbidea desbideratzeko aukera dauka eta baldintza ezberdinen arabera beharrezko modifikazioak egin ditzake, baldintza meteorologikoak edo ezinbesteko gertakizunengatik proba bertan behera utzi dezake.

18. Istripuetan laguntza: Lasterketan parte hartzen dutenek istripu bat pairatu dutenei laguntza ematera behartuta daude, kontrolguneetan ere istripuaren berri eman beharko dute.

19. Istripuetan erantzukizuna: Antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik izango istripuetan, axolagabekeri edo parte-hartzaileen gauzetan; azken honetarako

zaindegi zerbitzua egongo da. Parte-hartzaileak euren buruari edo besteei eginiko kalteen arduradunak izango dira.

20. Lasterkariaren asegurua: Ofizialki izen eman duten guztiak aseguru baten bitartez babestuak egongo dira, antolakuntzarekin adostua, zeinak probaren garapenaren ondorioz suertatutako istripuetan erantzukizuna izango duen. Baina inoiz ez ditu antolakuntzak bere gain hartuko: probaren aurretik pairatutako gertakizunak, arduragabekeriak, axolagabekeriak, arauteriari jaramonik ez egitea edo lasterketara joan eta etorriko bidaian gerta daitezkeenak.

21. Beharrezko materiala: Probako antolakuntzak nahitaez haizearen kontrako zira eramatea behartuko du, ez da behar txanoduna izatea. Parte-hartzaileek antolakuntzaren lana errazteko zenbakia bularrean eraman beharko dute. Bestalde, bastoiak eramateko aukera egongo da, baina, bastoiak eramatea erabakitzen duenak, hasieratik bukaeraraino eraman beharko ditu berarekin.

22. Baliogabetzeak eta ezeztatzeak: On-line eginiko erosketaren formalizaziotik 20 egun lehenago arte, proban parte hartu ezin bada, antolakuntzari jakinaraziko zaio lehenbailehen parte hartzea galarazten dion arrazoia azalduz. Kasu honetan, antolakuntzak eskaeraren arrazoia aztertuko du eta izen ematearen %100 itzuliko da. Hortik aurrera ez da dirua itzuliko.

23. Irudia: Txindokiko kilometro bertikalean izena ematean lasterkariak bere irudi eskubideei uko egiten dio. Antolakuntzak lasterketaren ondorengo egunetan argazkiak zintzilikatuko ditu eta lasterketa jarraitzen duten hedabideei informazioa eta argazkiak bidaliko dizkie.

24. EMFren Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketa. Mendi Lasterketa Bertikalen Euskadiko Txapelketan puntuatu hartu ahal izateko,

partehartzaileak EMFren urte horretako lizentzia izan beharko du, eta dortsala jasotzerakoan erakutsi beharko du fisikoki.

Txapelketako Kategoriak: Parte-hartzaileak kategoria eta azpikategoria hauetan banatuko dira: Kategoriak, Gizonezkoak eta Emakumezkoak: Kadete, Gazte, Junior eta Absolutuak.

- Kadete maila: 15 eta 16 urte, hau da, erreferentziako urtean 17 urte ez betetzea. Gazteen kategoria: 17 eta 18 urte, hau da, erreferentziako urtean 19 urte ez betetzea. Junior kategoria: 19 eta 20 urte, hau da, erreferentziako urtean 21 urte ez betetzea.
- Kategoria absolutua: 21 urtetik aurrera erreferentziako urtea beteta.
- -Gizonezkoen eta emakumezkoen azpikategoriak: A, B eta C beteranoak.

  A azpikategoria beteranoa: Erreferentziako urtean 50 urte betetzen ez dituzten 40-49 urteko gizonezkoak eta emakumezkoak Beteranoen B azpikategoria: 50 eta 59 urte bitarteko gizonezkoak eta emakumezkoak, erreferentziako urtean 60 urte betetzen ez dituztenak Beteranoen C azpikategoria: Gizonezkoena eta emakumezkoena, erreferentziako urtea bete duten 60 urtetik aurrera Denboraldi osorako kontuan hartu beharreko adina parte-hartzaileak lehiaketaren urteko abenduaren 31n duena izango da. Beteranoen A, B eta C azpikategorietan gizonezkoen eta emakumezkoen lehen sailkatuei bakarrik emango zaizkie sariak.

  Informazio gehiago EMFko araudiaren inguruan, hemen: https://emf.eus/Docs/Reglamento_CxM_EMF_2023_Eus-PA(1).pdf.

25.<u>Antolakuntzaren informaziorako kontaktua:</u> txindokikokb@gmail.com**.**

REGLAMENTO

1. **Fecha y lugar**: TXINDOKIKO KILOMETRO BERTIKALA se celebrará el 7 de mayo de 2023 en Larraitz (Abaltzisketa) y la salida será a las 10:00.
2. **Recorrido:** Esta carrera será una cronoescalada, por lo que los corredores saldrán de uno en uno. La carrera comienza en Larraitz y se irá hasta el cruce de Gaintza, parte que será neutralizada. Desde aquí es donde empezará a contar el tiempo en la subida a Txindoki, que tras pasar la fuente Oria, se tomará a izquierdas el camino conocido como del "rayo", hasta la cima. El recorrido consta de 3,6km de largo y 980m de desnivel positivo. Dependiendo del tiempo, se podrá modificar el recorrido.
3. **Participación:** Podrán participar corredores de entre 18 y 75 años (los mayores de 15 años podrán participar con permiso de los padres y si hay un tutor legal en la carrera). El número de corredores está limitado a 200 (más 30 dorsales más para la organización), siempre que cumplan con el reglamento y sus obligaciones.
4. **Categorías:**

Masculino:

- ➔ Absoluto: mayores de 18 años
- ➔ Junior: los que tengan 18,19 y 20 años, esto es, los que este año no cumplen 21.
- ➔ Cadetes: 15,16 y 17 años, esto es, los que este año no cumplen 18.
- ➔ Censados Abaltzisketa

Femenino:

- ➔ Absoluto: mayores de 18 años
- ➔ Junior: los que tengan 18,19 y 20 años, esto es, los que este año no cumplen 21.

- ➔ Cadetes: 15,16 y 17 años, esto es, los que este año no cumplen 18.
- ➔ Censados Abaltzisketa

5. **Inscripciones:** Comenzando en febrero y hasta llegar a 230 corredores. La organización se reserva 30 dorsales para cumplir con distintos compromisos.
6. **Precio:** El precio de la inscripción será de unos 24€. Este importe cubre la participación en la carrera, seguro de responsabilidad civil y de accidente, uso de todos los servicios ofrecidos por la organización (bolsa del corredor, avituallamientos, comida tras la carrera) y otros regalos. El participante debe estar presente para recibir la bolsa de corredor y los regalos. Todos los participantes aceptan este reglamento al realizar la inscripción.
7. **Indicaciones:** El recorrido estará marcado con banderines y cintas de balizaje (solo recorrido de subida). También habrá una referencia al inicio de la vía del rayo. Todas las indicaciones se retirarán nada más terminar la prueba.
8. **Puntos de control:** Se establecerá un punto de control durante la carrera, y es necesario pasar por ella y se hará un control del tiempo de corte.
9. **Avituallamientos:** Habrá 2 avituallamientos además del de inicio. En los situados durante el recorrido, kilómetro 2,35 y meta, solo habrá líquido (agua), mientras que en la salida habrá avituallamiento sólido y líquido.
10. **Tiempos de corte:** El/la que no llegue al punto de control (km 2,35) en una hora y 15 minutos no podrá continuar en la prueba porque ni la organización ni los servicios de socorro pueden garantizar su seguridad. Así, los responsables de la organización y los corredores “escoba” podrán forzar el abandono de un participante en los siguientes casos: si se ha superado el tiempo de corte, si su condición de salud puede peligrar, si se inclumpe el reglamento, si no se respeta el recorrido marcado, si el dorsal no es visible, si no se respetan las advertencias de la organización, si se incumplen las normas en los puntos de seguridad, o si la actitud hacia el resto de

corredores es inadecuada. Los que abandonen o sean expulsados, deben comunicarlo en el punto de control más próximo y deberán entregar el dorsal, y abandonar la prueba siguiendo las indicaciones de la organización.

11. **Salida de los corredores**: Salida individual. Se definirá un tiempo entre corredores (de 30 segundos hasta 2 minutos)
12. **Premios:**

Categoría absoluta masculina:

- ➢ 1º Txapela, trofeo e inscripción gratutita para la edición 2024
- ➢ 2º Trofeo
- ➢ 3º Trofeo

Cadete y junior masculino

- ➢ 1º Trofeo
- ➢ 2º Trofeo
- ➢ 3º Trofeo

Categoría absoluta femenina:

- ➢ 1º Txapela, trofeo e inscripción gratutita para la edición 2024
- ➢ 2º Trofeo
- ➢ 3º Trofeo

Cadete y junior femenino

- ➢ 1º Trofeo
- ➢ 2º Trofeo
- ➢ 3º Trofeo

Vecinos de Abaltzisketa: Trofeo a la primera mujer y al primer hombre

13. **Clasificación:** Todas las clasificaciones se publicarán en la web kronoak.com.
14. **Entrega de dorsales:** La entrega de dorsales se hará el mismo día de la prueba, entre las 8:00 y las 9:30 de la mañana en la carpa situada en la zona de salida. Se podrá recoger el dorsal presentando el DNI.
15. **Medioambiente:** La carrera se realiza en medio de montaña, por lo tanto está prohibido echar cualquier tipo de basura. Para ello en la zona de salida y control intermedio habrá papeleras para depositar papel, plástico y basura orgánica de forma separada. Las botellas de agua que suba la organización a la cima las bajará ella misma, y los participantes no podrán llevarse ninguna botella, para asegurar de que son recicladas de forma correcta. El incumplimiento de esta norma puede ser causa de descalificación. En el tramo del “rayo” no podrá haber audiencia. Por otro lado, teniendo en cuenta que la carrera transcurre por el Parque Natural de Aralar, pedimos a los asistentes que se le dé al Parque el respeto que se le corresponde (ruidos…)
16. **Asistencia sanitaria:** La organización dispondrá de servicios de asistencia sanitaria en puntos estratégicos. En meta habrá duchas y servicios sanitarios para los que lo necesiten.
17. **Seguridad:** La organización se reserva la opción de desviar el recorrido o hacer las modificaciones necesarias por distintos motivos, como las condiciones meteorológicas o otros imprevistos y podría cancelar la prueba.
18. **Auxilio en caso de accidente:** Los participantes están obligados a auxiliar al que haya sufrido un accidente y deberán avisar en los puntos de control.
19. **Responsabilidad en caso de accidente:** La organización no se responsabiliza de los accidentes, negligencias o efectos personales de los corredores; para esto último habrá un servicio de consigna. Los participantes serán responsables de los daños causados a sí mismos o a terceros.

20. **Seguro del corredor:** Todos los inscritos oficialmente estarán cubiertos por un seguro, acordado con la organización, el cual se hará responsable de los accidentes originados por el desarrollo de la prueba. La organización no se responsabiliza de: sucesos sufridos antes de la prueba, negligencias, incumplimiento del reglamento o lo que pueda suceder en el trayecto de ida o vuelta de la prueba.
21. **Material obligatorio:** La organización obliga a llevar un cortavientos, no hace falta que tenga capucha. Para facilitar el trabajo de la organización, los corredores deberán llevar el dorsal en el pecho. Cabe la posibilidad de llevar bastones, pero el que decida llevarlos, lo tendrá que hacer de principio a fin.
22. **Cancelaciones:** En las inscripciones realizadas online, hasta 20 días antes de la prueba, si no es posible participar en la prueba, se deberá comunicar a la organización, explicando el motivo. En ese caso la organización analizará la causa de la cancelación y en caso de aprobarlo devolverá el 100% del importe. A partir de esa fecha no se devolverá el dinero.
23. **Imagen:** Al inscribirse en Txindokiko kilometro bertikala el participante cede sus derechos de imagen. La organización colgará las fotos en los días posteriores y se enviará información y fotos a los medios que sigan la carrera.
24. **Campeonato de Euskadi de Carrera por Montaña Vertical EMF:** Para poder puntuar en el Campeonato de Euskadi de Carrera por Montaña Vertical EMF, el corredor deberá tener la licencia de EMF de este año, que deberán presentar físicamente a la organización en la recogida de dorsales.

    Categorías del campeonato: Los participantes estarán divididos en las categorías y subcategorías siguientes:

    -Categorías, Masculino y Femenina: Cadete, Juvenil, Junior y Absoluto.

    -Categoría cadete: 15 y 16 años, es decir que no cumplan los 17 años el año de referencia. Categoría juvenil: 17 y 18 años, es decir que no cumplan los 19

años el año de referencia. Categoría junior: 19 y 20 años, es decir que no cumplan los 21 años en el año de referencia. Categoría absoluta: a partir de 21 años cumplidos el año de referencia.

-Subcategorías Masculino y Femenina: Veterana A, B y C.

-Subcategoría veterana A: Masculina y femenina de 40 a 49 años que no cumplan los 50 el año de referencia

-Subcategoría veterana B: Masculina y femenina de 50 años a 59 años que no cumplan los 60 el año de referencia

-Subcategoría veterana C: Masculina y femenina a partir de los 60 años cumplidos el año de referencia

La edad a tener en consideración para toda la temporada será la que el participante tenga el día 31 de diciembre del año de la competición.

En las subcategorías Veterana A, B y C sólo se hará entrega de premios a los primeros clasificados Masculino y Femenino.

Más información sobre el reglamento de EMF en el siguiente enlace:

https://emf.eus/Docs/Reglamento_CxM_EMF_2023-PA.pdf

25. Contacto de la organización: txindokikokb@gmail.com